

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URIZAHARREKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Behin betiko onestea ondasunen inbentarioa

Urizaharreko Kontzejuak, 2020ko irailaren 19ko bilkura irekian, hau erabaki zuen:

Lehenengoa.- Baiestea Fernando Sáenz de Viteri Sobrónek (Ronda pasealekua, inbentarioko 131. fitxa) Geograma SLk 2020ko irailaren 16an egindako txosten tekniko-juridikoan oinarrituta egindako 1. alegazioa.

Bigarrena.- Baiestea Manuel Ramírez de la Piscinak egindako 2. alegazioa, Camino de la Mina delakoa ezabatzekoa (inbentarioko 160. fitxa), haren titulartasuna aztertzeko 01-1950 partzelari eragiten dion mugan.

Hirugarrena.- Baiestea Félix López López de Ullívarri jaunak egindako 3. alegazioa, Artandubiko bidea ezabatzekoa (inbentarioko 180. fitxa), haren geometria aztertzeko, 44-1-2415 eta 44-1-2413 partzelen artean.

Laugarrena.- Alegazioen inguruan hartutako erabakia alegazio egileei jakinaraztea eta aurreko erabakian aipatutako txosten tekniko-juridikoa bidaltzea.

Bosgarrena.- Behin betiko onestea Urizaharreko toki erakunde txikiko ondasun eta eskubi-deen inbentarioa, egin den bezalaxe eta Geograma SLk egindako txosten tekniko-juridikoaren arabera, salbu eta 2. eta 3. alegazioen edukiari dagokionez, baietsi egin baitira.

Seigarrena.- Erabaki hau kontzejuaren ediktu taulan eta ALHAOn argitaratzea.

Administrazio bidea amaitzen duen erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri aurretik, aukerako berraztertzeko errekurtsioa jarri ahal izango da, hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera edo, bestela, zuzenean aurkaratu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako epaitegian. Horretarako, bi hilabete izango dira, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Urizaharra, 2020ko irailaren 21a

Lehendakaria

ABILIO ALFAGEME BRAGADO